# LAUGARREN SAIOA

# PAZKO ALDIA

1 fasean gagoz, aurrera egiten huts egin barik. Aupa!
Ondo zagozela espero dogu, gogoan izan hemen jarraitzen dogula laguntzarik behar izan ezkero.

Orain bialtzen deutsuegu aste honetarako kate(kesia) etxean.

Gitxi geratzen da. Azken ospakizun handia izango dogu maiatzaren 31an, domekaz!!!
Pentekoste eguna!!! Jai nagusia izango da!!!
Espirituaren jaia.

## “Katekesia etxean” egitasmoa






... etxean gaude... baina ez giltzaperatuta...

Eskerrik asko, "Berri On" izateagatik!



# ZEURE ANTZEKO IZAN NAHI DUT
# Pazko aldiko V. igandea




## TARTETXO bat JESUSEKIN




1. Tartetxo bat hartu, lekua aukeratu eta eroso jarriko gara; kandela piztu eta Jesusen irudia, gurutze txiki bat, bihotza,... beraien zerbait... ipiniko dugu.
2. Haurrek egin duten igande honetako ebanjelioaren grabazioa eta "Hablamos" abestia entzungo ditugu. Zer kontatu digun, zein galdera pizten digun... komentatuko dugu.

Galdera hauek egin ditzakegu:

Zein bide egiten zenuen egunero? Norengan jartzen zenuen arreta? Zer diosku Jesusek Bera Bidea, Egia eta Bizia dela dioskunean? Bide hau ez da erraza...

"Jesus ez da adiskidea bakarrik. Benetako maisua da, bizitzako maisua eta zoriontasunerako bidea erakusten digu". Frantzisko Aita Santua

# ESKULANA

## “**Gurutzea** Bidea, Egia eta Bizia”



Gaur, kristau guztiok biltzen gaituen Gurutzea egitea da proposamena. Originaltasunak eta sormenak ez du mugarik, nahi duzuena egin, familiok horrelakoxeak gara-eta...









# OTOITZA –ORACION.

*Elkarrekin otoitz egingo dugu*

### Jesus, zure antzeko izan nahi dut

Jesus, zure antzeko izan nahi dut
Jesus, zure antzeko izan nahi dut

Adiskideak atsekabeturik ikustean...
Jesus, zure antzeko izan nahi dut

Ondo ez dagoen zerbait egin nahi dudanean...
Jesus, zure antzeko izan nahi dut

Alferkeriaz, norbaiti laguntzeari uko egiten diodanean...
Jesus, zure antzeko izan nahi dut

Bihotzez barkamena eskatu behar dudala sentitzen dudanean...
Jesus, zure antzeko izan nahi dut

Izadiari begira, sortu den guztiaz jabetzen naizenean...
Jesus, zure antzeko izan nahi dut



# ARGAZKIA BIDALI

Instagram

Pazko aldiko berritasuna!!!!
Larunbatero Instagramen ikus ditzakezue bidalitako argazkiak:

**Lacateencasa**



Bidali katekesiko taldeari edo katekistari egin duzuenaren argazkia: eskulana, katekesiko esaldi-hitza,...

**Garrantzitsua:**

Gorde!!! Ibilbidearen amaieran behar izango dugu-eta.

Instagram




**25 reproducciones**

**lacateencasa** Los aplausos hoy para las catequistas que hacen posible lacateencasa, catequistas de cada partoquia y dentro de cada casa. Zorionak !!!🎬 🎈 🎈 🎈




# BOSTGARREN SAIOA: PAZKO ALDIA

